

Merkataritza hizpide

Igandetik aurrera,
eliz-ospakizunak
Aginagan eta Usurbilen

Matrikulazio garaia
Zumarte Musika Eskolan

noaua



Inoiz baino etxeakoago

TABERNA ETA JATETXE IREKIERA! TERRAZA ZERBITZUA!



**BENTA
TABERNA**

BARAZAR
OSTATU-JATETXEA

ekainaren 2tik aurrera

TXIRIBOGA
TABERNA



TRAGOXKA
santuenea



**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

Ekaina
1 - 19



PREMATRIKULA

nola egin?

- on-line: ikasgunea.euskadi.eus
- Ikastetxean: txanda hartuta:

 943364600

Dokumentazioa:
DNI + espediente akademikoa

www.lhusurbil.eus

Albiste iruditan

Arkaitzerrekako isuria Gipuzkoako Ingurumen Fiskaltzan salatu dute

Hilabete hasieran Zubietako Herrautegi azpiko Arkaitzerrekan izandako isuria Gipuzkoako Ingurumen Fiskaltzan salatu dute Zubieta Lantzenek, Anerreka Ingurumen Elkar-teak eta Eguzkik. Ikerketa bat ofizioz hasteko eskatu diote Fiskaltzari, isuria ingurumenaren aurkako delitua izan daitekeelakoan. “Izan ere, Zigor Kodearen 325. artikulua berariaz jasotzen ditu, delitu mota horien artean, uren kalitateari edo animaliei edo landareei funtsezko kalteak edo kalte nabarmenak eragiten dizkieten edo eragin diezazkieketen legez kanpoko isuriak”, prentsara bidali duten agirian zehaztu dutenez.

Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioak horrelako gertaerei garrantzia kendu nahi diela uste dute, “baina gurekin bat ez datorrenak ere aitortu beharko du Arkaitzerrekaren kasuan izan duen



“Isuria maiatzaren 7an gertatu zen, baina GHK-k ez zuen haren berri eman, legez egin behar zuen bezala”, salatu dute Anerreka Ingurumen Elkar-teak, Zubieta Lantzenek eta Eguzki Talde Ekologistak.

jokaerak zerikusi gutxi duela saldu diguten erraustegi makulagabearen ereduarekin, non emisio kutsagarriak, airezkoak zein uretaratakoak, guztiz kontrolpean

omen dauden”. Anerreka Ingurumen Elkar-teak, Zubieta Lantzen Kultur eta Kirol Elkar-teak eta Eguzki Talde Ekologistak bideratu dute salaketa.

Laburrean

Posta bidez bozkatzeko aukera zabalik da

Maiatzaren 19an zabaldu zen posta bidez bozkatzeko aukera. Eskaera Correosen bideratu behar da, uztailaren 2a baino lehen (atzerrian modu iraunkorrean bizi direnek ekainaren 13ra arte).

14 kasu, maiatzaren 18ra arte

Osakidetza eskaintako azken datuen arabera, zenbaketa martxoan hasi zutenetik maiatzaren 18ra arte 14 izan dira Usurbilen, COVID-19az diagnostikaturiko herritar kopurua.

Berrogeialdian daudenentzat oharra

Udalak atez ateko sistema egokitu du COVID-19a izan edo berrogeialdian dauden etxeetarako. Kasu horietan, berebiziko garrantzia du Atez Ateko bulegora deitzeak: 900 776 776.

noaia

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 ||| elkartea@noaia.eus ||| www.noaia.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkariko koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Alaitz Aizpurua.

Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Publizitatea: Beatriz Alda,

publizitatea@noaia.eus

Banaketa: Inaki Irazusta,

Iban Maritxalar.

Tirada: 2.930 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

lbilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako:

erredakzioa@noaia.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

Euskal Herrira!



Maddi Aburruza

Behin ikasten ari zaren ikasketak amaitzen dituzunean, denok nahikoa galduta sentitzen garela iruditzen zait, amaitzen dugun momentu horretatik aurrera zer egin ez dakigula. Hori da nire oraingo kasua. Publizitatea eta Harreman Publikoen gradua hala nola amaitu dugu, Gradu Amaierako Lana irailean aurkeztuko dut; baina, orain, lau urte hauetan zehar ezer ikasi ez dudanaren sentimendurekin nago, lanean hasi eta ezer jakingo ez dudanaren sentsazioa dut.

Egia da irakasleek, gura-soek, lanean daudenek esaten dutela, behin lanean hasten zarenean, orduan ikasten dela. Baina, lanik ez badut aurkitzen? Hainbat urte geldirik egoten banaiz? Nik hori ez dut nahi, ez dut urte oso bat geldirik egon nahi, ezer egin gabe; baina, ez dut master bat egin nahi. Beste ikasketa batzuk burutuko banitu, agian egingo nuke, baina ez zait iruditzen nire ikasketetarako

beharrezkoa denik, nahiago ditut nire arloko hainbat kurtso ezberdin burutu eta apur bat denetik ikasi.

Gainera, garbi dut nik ez dudala Madrilera edo Bartzelonara joan nahi, ezta Bilbora ere. 4 urte bertan pasa ondoren, ez dut berriz ere egunero hara joaten ibili nahi, eta horregatik, online kurtsoak begiratzen nabil. Ez dakit egokiena den, baina gustuko ditudan gaiak jorratzen dituzten kurtsoak bilatu ditut, beraz, aurrera horrekin egingo dudala iruditzen zait.

Ikasketak amaitu ondoren dugun beldurrari, ezjakintasunari eta zer egin ez dakigun momentu horri, gaur egungo egoera gehitu behar zaio. Enpresa askok oraindik itxita jarraitzen dute noiz ireki ez dakitela, beste hainbatek guztiz itxi beharko dituzte lanik ez dutelako eta horri ezingo diotelako bueltarik eman, beste batzuk oraindik etxetik jarraituko dute lanean... Beraz, ikasten orain amaitu dugunok, zer egin behar dugu? Non hasiko gara ate joka?

Eta ikasketak amaitzean, zer?

Irakasle batek azken klase egunean aipatzen zigun, enpresa askok gure gradua ikasi duen jendea beharko dutela, berriz ere merkatuan posizio onean jar daitezen, bizitako egoerari buelta eman diezaioten. Izan ere, enpresek, lan asko egin beharko dute komunikazio arloan. Baina, orain egoera dagoen bezala egonda, nor hartuko du ikasketak amaitu berri dituen pertsona bat? Nor egongo da prest guri erakusteko?

Iruditzen zait, enpresari, dendari, tabernari askori egoera asko zaildu zaien bezala, guri, ikasleoi ere asko zaildu zaigula. Normalean zaila egiten bazaigu lana aurkitzea, edo beldurra izaten badugu zer egin ez dakigulako, oraingo egoeran hau guztia bikoiztu egin dela pentsatzen dut. Izan ere, ez daukagu nahikoa esperientzia enpresa edo agentzia batean sartu eta gure kabuz lanean hasteko.

NOAUA!n 3 hilabetez kolaboratzaile gisa hasteko eskaini zidaten momentuan, egia esan, ez nekien nondik hasi eta buru-

tutakoa "bakarrik" egin dudala esan dezaket, eta aurrera atera ditudala egin beharreko lanak. Eta, eskerrak eman nahi dizkiet honetarako nirekin kontaktu izanagatik, esperientzia hau bizitzeko aukera emateagatik.

Hala ere, esan beharra dago, enpresa batean zailagoa izango litzatekeela hasiera batean, zure kabuz lanak egiten hasitea. Baina, gustuko lekuan aldarrik ez omen dago eta ni, gauza berriak ikasteko gogoz nago. Ez dakigu honen guztiaren eboluzioa nolakoa izango den eta gu guztiok non egongo garen; baina badakit, benetan lanean hasteko gogoia dudala eta NOAUA!ko eskaintza batere espero gabe iritsi zen bezala, beste zerbait ere iritsi daitekeela. Baina, bitarte horretan, lanean jarraitu beharra dagoela argi dut; kurtsoak egiten, ahal den lekuetan lan egiten, kurrikulumak hainbat lekutara bidaltzen... geldirik behintzat ez naiz geratuko, zerbait iritsiko delaren esperoan. Baina, bai, apur bat beldur naiz.

Imanol Ubeda

Aritz Gorriti

Luis Aranalde

Maddi Aburruza

Ika-mika

Natura: Bizitza

Urtero bezala natura borborka daukagula ikusten dugu. Horren adierazle zuhaitz eta landareen berpizte edo ingurumena (klima) bere onena nabarmen (bi hilabete eskasean) etorri dela entzutea. Bizitzen dugun segundo bakoitzean (nahiz eta ikusi ez) arnasten dugun haize garbiagoa dela jakite hutsak, pertsonak osasuntsuago egiten gaitu eta naturaren zati garenez bizitzari oparotasunez begiratzen diogu.

Azken boladan, bertako pro-

duktuak kontsumitzea osasuntsuagoa dela, geroz eta gehiago entzuten diet baita sukaldari ospetsuei ere. Zubietan, Usurbil, Aginaga inguruetan (eta beste askotan) milioika landareetatik jasotzen diren fruituak dira sukaldean prestatu eta dastatzen ditugunak.

Egun hauetan gehien entzun dudana hitza ZAINZA izan da. Komunikabide guztietan azaldu zaigu. Herritarrok leiho eta balkoietan (sendagile, erizain, baserritar, dendari eta abar) adierazi duguna auzolan eral-

doi baten bidez.

Askatasuna murriztu digun konfinamendu edo itxialdi honetan ikasgai aberatsaren aurka doan ekintza da Zubietako erraustegiaren kutsadurak errekako arrainak hil dituela jakitea, edo bere tximiniatik irtetzen den kea ikustean buruan darabilkigun hitza pozoia izatea.

Ze zaintza eskaintzen digu kutsadura zabaltzen duen erai-kin horrek?

Erraustegiaren alde dauden alderdi politikoetako buruza-

giek nahiz eta naturaren alde azaltzen zaizkigun, kutsadura zabaltzen digutenean, beraien hitz jario ponpoxo kirasdunen aurrean, mesfidantza azalduz, deskonfiatu egin behar dugula derizot.

Jokabide horrekin, osasuntsuago izango gara, guztion zaintza babestuko dugu eta natutari errespetuz begiratuko diogu.

Natura, osasuna eta bizitzari bai, erraustegia ez!!

Orkatz

Urbil merkataritza-gunea zabalik da astelehenetik

NOAUA! Eroski zabalik egon da baina Urbilgo gainontzeko saltokiak, jatetxeak eta zerbitzuak itxita egon dira bi hilabetez. Irekiera osoa gauzatu ahal izateko, egokitzapen asko egin behar izan al dira?

Javier Colorado: Protokolo bat lantzen aritu gara azken asteotan. Bi helburu nagusi ditu protokolo honek: batetik, saltoki guztien itzulera bermatzea, segurtasun osoa eskainiz. Eta bestetik, bisitari zein langile guztien osasuna eta segurtasuna bermatzea. Hau ere funtsezkoa da guretzat.

Helburu horiek lortzeko ekintza plan bat ezarri dugu. 6 Feet Retail protokoloan oinarritu gara, Osasunaren Mundu Erakundearen zein medikuntza adituen aholkuak jarraituz diseinatu duguna.

Zertan datza 6 Feet Retail protokoloa?

Hiru oinarri nagusi ditu: segurtasun-distantzia errespetatzea, garbitasuna eta osasuna bermatzea eta kontzientziazioa sustatzea. 350 neurri ezarri ditugu guztira: parking-etan, sarrera-irteeretan, galerietan, komunetan, klimatizazio zein aireztatze sisteman... Urbil osoa nebulizazio sistema baten bidez desinfektatu dugu. Eta maiz egingo dugu, segurtasuna bermatu ahal izateko.

“Lanean hasteko gogotsu geunden”

Segurtasun eta garbitasun alorreko neurri guztiak betearazteko, gogotik aritu dira lanean azken asteotan. “Helburua argia da: bisitarietara, langileetara eta operadoreetara itzulera segurua bermatzea”, aitortu ditu Javier Coloradok. Eroski zabalik egon da bi hilabeteotan baina gainontzeko saltokiak astelehenean ireki zituzten. “Lanean hasteko gogotsu geunden”.



Cushman&Wakefield enpresak kudeatzen du Urbil merkataritza-gunea. Javier Colorado zuzendariak adierazi digunez, “merkataritza-gune osoa eta parking-a desinfektatu ditugu nebulizazio sistema baten bidez”.

JAVIER COLORADO

“Inbertsio handia egin dugu seinalizazioan eta informazio-karteletan. Baita giza baliabideetan ere, segurtasuna eta garbitasuna ziurtatzeko”

Zirkulazioa ere egokitu egin duzue, ezta?

Sartu edota ateratzeko, sarbide guztiak independenteak dira orain. Jendea ez dadin gurutatu. Urbilen barruan ere, pasaleku ezberdinak sortu ditugu segurtasun-distantzia errespetatu dadin.

Bestetik, toki askotan ipini

ditugu gel hidroalkoholikoak, eskuak maiz garbitzeko aukera izan dezan jendeak. Alfonbrak ere ipini ditugu atari guztietan, oinetakoak desinfektatzeko.

Beraz, garbiketa zerbitzua indartu beharko duzue datozen egunetan.

Segurtasun eta garbiketa zerbitzuak indartu ditugu. Batetik, bezeroari bete behar dituen neurriak gogorarazteko. Eta bestetik, egunero garbituko ditugu sentsibleak izan daitezkeen puntuak: atak, eskailera eta igogailuetako heldulekuak, komunak... Aforoa mugatua izango denez, hori ere zorrotz beteiko dugu.



Seinale ugari ezarri dituzte saltoki atarietan nahiz sarbideetan.

Garbiketa lanak bikoiztu egin dituzte

Giza baliabideak bikoiztu egingo dituzte informazioa zabaldu eta garbiketa lanak indartzeko. “Jendearentzako irekita egongo den orduetan, prestakuntza berezia jaso duen talde batek kontaktuko gainazal guztiak (igogailuak, eskubandak, ateetako heldulekuak...) modu sistemati-koan desinfektatu eta komunak sakon garbituko ditu”. Urbilgo iturriek aditzera eman digutenez, “homologatutako produktuak erabiliko dira”.

Nebulizazio-sistemak

Jendearentzat itxita egongo den orduetan, “merkataritza-gunearen desinfekzio osoa egingo da, nebulizazio-sistemak erabilita”.

Gela, puntu ezberdinetan

Horrez gain, gel hidroalkoholikoekin hornitutako desinfekziozko puntu batzuk ipini dituzte merkataritza-gunean barrena.

Seinaleak, norabide egokia zehazteko

Sarbideetan, sarrera eta irteera argi bereizita daude, eta erdiko korridoretan ere bezeroen joan-etorriak seinale bidez finkatu dituzte. “6 Feet Retail protokoloak ezarritakoari jarraituz, seinaleak gainazal bertikaletan zein zoruan instalatu dira”. Seinaleek oinez ibili beharreko noranzkoa zehazten diete bisitarietara eta segurtasun-distantzia mantendu beharra dagoela gogorarazi.

Arreta zerbitzua

Bezeroaren arretarako guneetan, bisitarietarako informazio zuzena eskaintzen ari dira. Gainera, merkataritza-guneko galerian langileen kopurua nabarmen ugartuko da neurri berriei buruzko informazioa azpimarratzeko.

Otar-Goxo denda: “Bezeroarekin duzun konfiantza oso inportantea da”

COVID-19 birusaren ondorioz, asko aldatu dira gauzak. Erosketak egiteko modua, esate baterako. Garai zailak izan dira bezeroentzat, maiz zain egon behar izan dutelako. Eta akaso are zailagoak janari dendetako langileentzat. Segurtasun neurriak betetzen eta bezeroak ondo atenditzen ahalegin bikoitza egin behar izan dutelako.

NOAUA! Etor zitekeela jakin arren, konfinamenduak ezustean harrapatu gintuen denoi, edo ia denoi. Zuek hala ere, telefono bidezko zerbitzua jarri zenuten martxan. Jende askok baliatu al du eramateko zerbitzua?

Patxi Iparragirre. Lehendik ere zerbitzu hori ematen genuen, baina konfinamendua hasi zenean indartzeko beharra ikusi genuen. Oso zaila egiten zitzaigulako jende guztia hona etorri eta ilaran zain egon behar izatea. Oso deserosoa izateaz gain, oso biolentoa egiten zitzaigun.

Hasieran gainera, denda guztiak gainezka egon ziren.

Konfinamendua ezarri bezperan, martxoaren 13an eta 14an, oso zaila izan zen lan egitea. Zergatik? Jendeak beldurra sartuta zeukan barruraino, lokal guztiak beteta, eta



“Jende askok telefono bidezko zerbitzua erabili du”, adierazi digute Otar-Goxokoek.

OTAR-GOXO

“Ilara luzeak bereziki jai bezperan eman dira. Baina jendeak oso ondo erantzun du”

herritarrek erosketak egin nahi zituzten.

Urduritasuna nagusi zen egun haietan.

Bitxikeria bat kontatuko dizut. Gizon bat hasi zen eztulka, eta denda topera zegoen. Gizona oso ondo zegoen, baina segi-

tuan konturatu nintzen jendea kezkatzen hasia zela. Hori ikusita, saiatu behar ginen jendea ez pilatzen. Argi neukan ez nuela egoera hori bizi nahi.

Eta hasierako egun haietan, bezeroak denda ataritik atenu zenuzuten.

Nik argi neukan. Jendea ezin zen denda barrura sartu. Kanpotik eskatu behar zuen. Lehen bi egunetan horrela aritu ginen. Baina kristoren ilarak sortu ziren eta orduan hasi ginen bezeroak binaka hartzen. Zeren jendeak gauza gehiago

eskatu nahi zituen, erakusleihotetan zer zegoen begiratu... Eta bezeroak binaka hartzen hasi ginen. Orain hala egiten dugu. Bi bezero sartzen dira: bat hemen eta bestea han, punta banatan.

Jendeak, orohar, ondo erantzun al du?

Oso ondo. Jende guztiari behartzen diogu eskuak garbitzea. Eta bestetik, bezero askok telefono bidezko zerbitzua erabili dute. Telefonoa atenu zuten, eskatutakoa prestatu, banatu... Lanak handitu zaizkigu.

“Jendeak errespetu handia hartu die superfiziei handiei”

NOAUA! Konfinamendua arintzearekin batera, egoera apaltzen hasiko zen, ezta?

Patxi Iparragirre. Lehen bi-hiru asteak oso itogarriak izan ziren. Gero pixkanaka-pixkanaka, joan gara neurria hartzen. Azkenean, lan gehiago

egiten duzu baina mantsoago. Gehienez ere bi bezero sartu daitezkeenez, luzatu egin da erosketaren denbora.

Ilara luzeak bereziki jai bezperan eman dira. Baina jendeak oso ondo erantzun du.

“Bertakoa gehiago balortuko dugu aurrerantzean”. Askok hala pentsatzen dute. Zu ere uste berekoa al zara?

Nik uste dut baietz. Jendeak errespetu handia hartu die superfiziei handiei. Pilaketa handiei beldurra hartu dio.

Eta merkataritza-gune handietan ere, ilarak sortzen dira. Sentsibilizazio aldetik, uste dut jendeak beste jarrera bat hartuko duela. Hala iruditzen zait. Eta bezeroarekin duzun konfiantza ere oso inportantea da.

Arruti harategia: “Orain ere, konfinamendua hasi aurretik baino hobeto ari gara lanean”

NOAUA! Konfinamendua hasi zenean, jendeak ezin zuen herriatik atera. Horrek eragina izango zuen jardunean. Lan gehiago egin al duzue bi hilabeteotan? Edo antzeko martxan aritu zarete?

Jon Arruti. Lehen bi-hiru asteetan lan gehiago egin genuen. Dezente gehiago. Eta orain ere, konfinamendua hasi aurretik baino hobeto ari gara lanean.

Lehen egunetan urduritasuna izan zen nagusi. Hainbat elikagai agortu egin ziren. Harategietan ere antzeko fenomeno eman zen, ezta?

Histeria orokorra izan zen. Dena den, hornigaiak ez ziren bukatu. Janaria, egon bazeagoen, baina bi behar zituenak hamar erosten zituen. Eta azkenean katea moztu egin zen.

Egun konkreturen batean, oilaskoaren stock-a mugatu egin behar izan zuten. Bi egunez edo ekarri ziguten generoa errazionatuta, baina segituan normalizatu zen egoera. Gauza puntual bat izan zen.

COVID-19 birusari aurre egiteko, segurtasun neurri bereziak ezarri behar izan ziren zabalik zeuden saltokietan. Zuei nola eragin zizuen?

Jendea harategi barrura sartu



Osasun krisia hasi zenetik hona etenik gabe aritu dira lanean. Goizez bakarrik zabaltzen dute, 8:30etik 13:30era. Konfinamendua baino lehen ere, ordutegi horrekin ari ziren lanean.

JON ARRUTI

“Harategiaren atarian atenditzen dugu. Mahaitxo bat jarri dugu atean eta bezeroak kanpotik ikusten du zer dagoen erakuslehoan. Aukeratutakoa poltsa batean ematen diogu ateraino, ordaindu eta agur”

beharrean, atean atenditzen dugu. Mahaitxo bat jarri dugu atean, eta bezeroak kanpotik

ikusten du zer dagoen erakuslehoan. Aukeratutakoa poltsa batean ematen diogu ateraino, ordaindu eta agur.

Beste toki batzuetan bezala, zuen harategian ere ilarak sortu dira tarteka. Jendeak nola hartu ditu neurriok?

Arazorik ez dugu izan. Banakako ilaran egon dira bezeroak, distantzia mantenduz. Gure kezka zen ea ondo ari ote ginen eta denek berdin erantzuten ziguten: “ederki ari zarete, lasai”.

Eta zuen bezero fidelen artean, baten batek eskertu al du asteotan egin duzuen lana?

Baten batek bai, esan digu. Baina ez da bereziki eman den zerbait. Lagun dudan suhiltzaile batek esaten zidan “orain zuek gu bezain beharrezkoak zarete”. Nik hori barneratuta daukat, baina badirudi arlo batzuk gehiago txalotzen direla. Uste dut jendeak ez duela planteatu ere egiten, ohitura jarraitu eta listo.

“Jendeak zerbait segurua nahi duenean badaki nora jo”

NOAUA! Krisi hau amaitzen denean, batzuk diote bertakoa eta gertakoa gehiago baloratuko dugula. Ados al zaude?

Jon Arruti. Baloratuko duela ez dakit. Baloratu beharko lukeela, seguru. Uste dut zer-

bait aldatuko dela. Guk urte pila bat daramatzagu hemen eta horrelakoetan (behi eroen krisia eta antzekoak eman izan direnean) guri lana igo egiten zaigu beti. Horrekin egiten duan hausnarketa da jendeak zerbait segurua nahi duenean

badakiela nora joan behar duen.

Orain gertatzen ari denarekin, herritarrak janik gabe ez geratzeko batzuk aurpegia jartzten ari garela ikusita, jendeak hausnarketa bat egin beharko luke, eta batez ere inguruan

utzi dirua.

Kate handiek badakigu zer egiten duten. Zuri jaten ematen dizute baina dirua kanpora joaten da. Esperantzeta badaukat ea aldatzen diren jendearen erosketa-ohiturak eta bizi-ohiturak.

Mikel Arrandegia: “Azken asteotan globoak behera egin du”

Mikel Laboa plaza. Eguerdi partean. Laurok dendan eskatzeko ilara, Labe-Goxon ogia erosteko ilara, Correosen ilara, Mikel arrandegian sartzeko beste horrenbeste... Konfinamenduak iraun duen denboran, maiz eman da antzeko egoera. “Azken asteotan globoak behera egin du”, adierazi digute Mikel arrandegian. Konfinamendua arintzearekin batera, gauzak bere horretara itzultzen hasi dira.

NOAUA! Konfinamendua hasi zenean, jendeak ezin zuen herritik atera. Horrek eragina izango zuen zuen jardunean. Lan gehiago egin al duzue bi hilabeteotan?

Mikel Arrandegia. Lehen etortzen ez zen jendea etortzen hasi zen. Herrian bizi baina beste toki batzuetara joaten zena, kanpora batez ere. Jende hori hurbildu da asteotan.

Orain konfinamendua libratzen hasi denetik, aldaketa sumatu da. Lehen asteetan, ezagutzen ez genuen jendea hurbiltzen hasi zen. Baina globoak behera egin du azken asteotan.

Lehengo bezeroak mantendu dituzue. Baina berriren bat ere



“Barruan bi ari bagara lanean, bi lagun bakarrik sar daitezke. Bakarra badago lanean, bezero bat bakarrik sartzen da”.

MIKEL ARRANDEGIA

Lehen egunetan ilara luzeak sortu ziren denda atarian. “Eguerdian bereziki. Jende gehien orduan ateratzen zelako”

irabaziko zenuten, ezta?

Bakarren batek jarraituko du baina ez konfinamendu hasieran bezala.

Segurtasun arrazoiengatik,

bezeroak banan bana hartu behar izan dituzue. Zuei nola eragin dizue honek guztiak?

Barruan bi ari bagara lanean, bi lagun bakarrik sar daitezke. Bakarra badago lanean, bezero bat bakarrik sartzen da. Gai-nontzekoek kalean itxaron behar dute, beren txanda etorri arte.

Tarteka ilarak sortu dira denda atarian, ezta?

Lehen momentutik. Eguerdi aldera bereziki, jende gehien or-

duan ateratzen zelako. Pilaketa batzuk izan ziren hasieran. Orain ere bai, baina ezberdina da. Jendea edozein ordutan atera daitekeelako orain.

Neurri hauetara ez geunden ohituta. Jendeak nola erantzun du?

Bakarren bati luze egin zaio itxaronaldia. Beste toki batera joan eta han ere itxaron behar izan duenez, estutuko zen. Beste batzuk lasai hartu dute. Bakoitzaren izaerarekin doa hori.

“Lehengo lepotik burua”

NOAUA! Krisi hau amaitzen denean, batzuk diote bertakoa eta gertukoa gehiago baloratuko dugula. Ados al zaude?

Mikel Arrandegia. Nire zalan-tzak ditut. Nahiago nuke hala ez izatea baina lehengo lepotik burua izango dugun iru-

dipena dut. Ez da lehen bezala izango, baina jendeari lehengoak tirako dio.

Eta zure bezero fidelen artean, baten batek eskertu al du asteotan egin duzuen lana?

Bai, batzuk bai. Eta esan ere bai.



Jendeak pazientziarekin errespetatu du bere txanda.

Pello Arrandegia: “Jendea oso ondo egokitu da egoera berrira eta oso ondo erantzun du”

NOAUA! Elikagaien saltokiak funtsezko jarduerak direnez, lanean aritu zarete konfinamenduak iraun duen denboran. Nolakoak izan dira aste hauek zuentzat?

Pello Arrandegia. Lan gehiago izan dugu.

Duela gutxi arte gainera, jendeak ezin zuen herritik atera.

Jendeak ezin zuen herritik atera, ezin zuen kontsumitu inon. Jateko leku bakarra zen etxea. Ez pintxo-pote, ez hamburgera, ez bokata... Ezer ez. Beraz, jana etxera eraman behar. Beste aukerarik ez zegoen. Dena etxean egin behar zen. Dena horra bideratuta zegoen, etxean egotera.

Segurtasun neurri bereziak ezarri behar izan dituzue. Ondo egokitu al zarete? Eta zuen bezeroak?

Jendea egoerara egokitu da momentu guztietan. Eta neurriak oso ondo errespetatu ditu.

Banaka atenditu dituzue bezeroak. Horren ondorioz, hainbatetan ilarak sortu dira zuen arrandegi atarian.

Jendeak oso ondo ulertu du itxaron beharra zuela. Eta modu naturalean erantzun du. Hortik ez dugu inolako arazorik izan. Baina egunotan sortu



“Guk, denda txikiok, martxan egon behar dugu”, adierazi digu Pellok. “Errotak ura behar du mugitzeko eta guk bezeroak behar ditugu mugitzeko”.

PELLO ARRANDEGIA

“Ilarak sortu dira. Baina jendeak oso ondo ulertu du itxaron beharra zuela. Eta modu naturalean erantzun du. Ez dugu inolako arazorik izan. Baina ilara horiek ikusita, hainbatetan presiopean egin dugu lan”

diren ilara horiek ikusita, hainbatetan presiopean egin dugu lan.

Jendea zain dagoela ikustea ez da oso lasaigarria izango lanean ari denarentzat, ezta?

Tentsio askorekin egin dugu lan. Baten batek pentsa lezake, “beste pertsona bat ekartzea zuen”. Nik bezeroak beti berdinak ditut, eta bezeroak nahi du nik zerbitzatzea, nire erara garbitutako arraina eramatera ohituta dagoelako. Dena den, esan dudan bezala, jendeak oso ondo ulertu du egoera eta ez dut arazorik izan.

Alderantziz. Oso eskertua sentitzen naiz. Aste hauetan

eman dugun zerbitzuarekin oso eskertua sentitu naiz. Tentsioarekin bizi izan dut baina jendearen eskertza hori ikaragarria da.

Hori garrantzitsua izango da. Goizero lanera etortzeko indarra emango du babes hori sentitzeak, ezta?

Guk, denda txikiok, martxan egon behar dugu. Errotak ura behar du mugitzeko eta guk bezeroak behar ditugu mugitzeko. Beraiek eskertu dute gure lana baina guk ere bai.

“Azken urteotan jende berri asko etorri da herrira”

NOAUA! Lehen etortzen ez zen bezeroren bat hurbilduko zitzaizun aste hauetan.

Pello Arrandegia. Azken urteotan jende berri asko etorri da herrira. Baina kanpoan egiten dute lan edo erosketak egiteko beste ohitura batzuk dituzte. Azken asteotan bai, batzuk

lehen aldiz etorri dira. Horretaz konturatu gara baina hori bera positiboa da.

Prezioak gainera nahikoa txukun ibili dira. Jatetxeak lanean ez egoteak, guri lagundu egin digu. Prezioak apaltxoago ibili direlako mostradorean.

Krisi hau amaitzen denean, batzuk diote bertakoa eta gertukoa gehiago baloratuko dugula. Ados al zaude?

Ez dut uste hala izango denik. Gizakia oso egoista da. Erraz aldatzen gara eta erraz mugitzen gara batetik bestera. Bakarren batek ezagutu du gure lan egi-

teko modua eta bueltatuko da. Beste kontu bat izango da ekonomiaren egoera.

Alegia, epe erdira nola aterako garen bidegurutze honetatik. Denborak esango du hori.

Hori da.

Alkartasuna kooperatiba: “Lana bikoiztu egin zaigu”

Martxoaren erdialdetik hona, Alkartasuna Baserritarren Kooperatiban lanez gainezka dabilta. Baratzerako osagaien salmentak ez dira apaldu eta elikagaien zein garbikarien salmentak gora egin du. “Hori gutxi balitz, udaberrian gaude eta guretzat lan handiko garaia izaten da hauxe”, adierazi digu Asier Kortadik.



“Udaberrian gaude eta guretzat lan handiko garaia izaten da hauxe”, adierazi digu Asier Kortadik.

NOAUA! Konfinamendua hasi zenetik hona, lan gehiago egin duzue ala antzeko martxan aritu al zarete?

Asier Kortadi, Alkartasuna Baserritarren Kooperatiba. Nabarmen handitu zaigu lana. Bikoiztu egin da hainbatetan. Jendeak ezin herritik mugitu, hona etortzeko aukera egin zuen. Hasierako psikosi horrekin gainera, jendea erosi erosi eta erosi aritu zen.

Bestetik, tabernak itxita egoteak ere bere eragina izan du. Inora ezin joan eta jendeak etxera eraman du edatekoa. Hori gutxi balitz, udaberrian gaude eta guretzat lan handiko garaia izaten da hauxe.

Asteotan lehen aldiz etorri denik ere izango da.

Bai. Eta mantendu egin dela esango nuke. Kanpoko jende bat ere orain hasi da hona etortzen. Eta bada beste arrazoi bat: behin paseoak ahalbidetu ziren

ALKARTASUNA
Jendeak eskertu du bi hilabeteotan Alkartasunak egin duen ahalegina. “Hasieran batez ere. Askotan esan digute, eta emailaz ere idatzi digute eskerrak emanez”

momentuan, paseo polita da hemengo eta jendeak kooperatiban sartzeko aprobetxatu du.

Herri baratzeak itxita egon ziren bolada batean. Baratzeke lanari lotutako salmentei dagokionez, etenaldirik sumatu al zenuten?

Ez, ez da etenaldirik izan. Sumatu genuena izan zen jende askok beldurra zuela hona etortzeko. Ez zekien hona hurbiltzeko aukerarik zuen ala ez,

Kooperatiba irekita ote genuen ala ez, baratzeak baimenduko zituzten ala ez... Telefono dei pila bat jaso genituen bolada horretan.

Usurbildik kanpoko bezero asko dituzue. Beherakadarik igarri al duzue?

Askok deitu zuten hona, etortzea ba ote zuten galdezka, eta guk ez genekien zer erantzun... Ohitura zutenak etorri dira eta berri batzuk ere hasi dira hurbiltzen. Bestetik, banaketa zerbitzuarena ahoz aho zabaldu da eta asko igo da. Jende batek beldurra zuen hona etortzeko eta eramateko eskatzen zuen. Bi ibilbide ditugu: aste batean Usurbil inguruan ibiltzen gara eta hurrengoan Igeldo partean. Lehen banaketak egun bat eskatzen zigun, orain 2-3 egun eskatzen dizkigu.

“Protokoloa oso erraza da: eskuak garbitu sartu aurretik eta distantziak mantendu”

NOAUA! Segurtasun neurriak ezarri behar izan dituzue. Jendeak ondo hartu al ditu?

Asier Kortadi. Bi jarrera egon dira. Batetik, beldurra adierazten zutenak –adinduak bereziki–; eta bestetik, ezer gertatuko ez balitz bezala etortzen zire-

nak. Oso nekagarria izan da.

Protokoloa oso erraza da hemen: eskuak garbitu sartu aurretik eta distantziak mantendu. Jende bati esan behar izan zaio eta batzuk ez dute gustura hartu. Beste batzuk aldiz, protokoloa zein den gogoraraztea

eskertu eta dena egin digute.

Bestetik, ilarak sortu dira. Jendeak zain egon behar izan du dendaren atarian. Ilaran egon behar izan dute eta ez da atsegina. %95ak oso ondo eraman du baina batzuk kexatu egin dira.

“Bertakoa eta bertakoen lana gehiago baloratuko da”

NOAUA! Krisi hau amaitzen denean, bertakoa eta bertakoa gehiago baloratuko dugula diote batzuk. Ados al zaude?

Asier Kortadi. Nik uste dut baietz. Bertakoa eta bertakoen lana gehiago baloratuko dela. Ez da oraingoa mantenduko, hori argi eta garbi. Eskaria jaitsi egingo da baina kondar bat geldituko da. Zenbaterainokoa? Hori da ikusi beharko dena. Inpresio hori daukat. Kate handiekin lanean dabil-tzan bertako ekoizle asko adibidez, oso gustura dade. Beraiek erantzun dute, kanpokoek erantzun ez dutenean. Beraiekiko nolabaiteko errekonozimendu bat egongo dela uste dut.

Elikagaiak, edariak eta garbikariak

Elikagaietan eman da igoerarik handiena, ala proportzionala izan al da igoera?

Elikagaiak, edariak eta garbikariak. Horiek izan dira gehien igo diren salmentak. Komuneko papera ere saltzen dugu, kar, kar, kar. Eta ez dugu arazorik izan.

Zerbezarik edo legamiarik ez da falta izan?

Ez, stock handia izaten dugu beti. Legamia amaitu zen bai, baina beste produktuekin ez dugu arazorik izan.



Sagardo botilen salmenta igo egin da konfinamendu garaian.

Irudimena nagusi Sagardo Egunean

Sagardo botilak freskatzen jarriak, alkondara txuriak soinean, koadrodun zapiak lepoaren bueltan... Trikiti doinuak, hamaiketako goxoa prest... Eta festarako gogo. Une zailetan ere festarako gogo zapuzterik ez dagoela erakutsi zuten hainbat herritarrek, haien bizilekueetatik.

Plazan ezin batu, herritarrek etxean eta etxeokokin ospatu zuten Sagardo Eguna. Osasun krisialdiaren ondorioz, 39. Sagardo Eguna ezohikoa bezain ikusgarria izan zen.



Sare sozialetatik hartu ditugu argazki batzuk, NOAUA!ko kideok atera ditugu beste batzuk. Eta badira helbide elektroniko bidez iritsi zaizkigunak.



Argazki eta bideo gehiago topatuko dituzue noaua.eus orrialdean.

Igandean, meza Usurbilen eta Aginagan

Eliz-ospakizunak ere bueltan dira. Igande honetan, hilak 31, Mendekoste igandea ospatuko dute Usurbilen eta Aginagan. "Pazko berrogeialdiaren amaiera. Pazkoaren amaiera. Pazko bakarra ospatzen baitugu 50 egunez. 50 egunez gure fedearen oinarria ospatzen dugu. Aurtentzen ezin izan dugu elkartean Pazko Hirurrena ospatu, baina Mendekoste eguna elkartean ospatzeko aukera izango dugu. Pazko Zuzia, gure fedearen ezaugarria Piztuko dugu. Biziagan dugun fedea aldarrikatzeko ezaugarria. Bizarazle izatera deitzen gaituen deia. Piztu da".

Egoerak horrela eskatuta, neurri hauek hartu behar dira kontuan:


- Musukoarekin joan behar da.
- Parrokiara sartzeko ate bakarri erabiliko da: Salbatoren, dorre azpiko atea; Aginagako Asisko San Frantziskon, atzeko atea.
- Sarreran eskuak garbitu beharko dira.
- Aforoa mugatua eta distantzia minimoa errespetatu behar denez, esertzeko lekuak markatuta egongo dira.

"Ez izan beldurrik"

Ohar baten bidez aditzera eman dutenez, "bertan izango gaituzue laguntzeko. Pazko mezu bat luzatu nahi dizuegu, ez izan beldurrik, errespetua eta ardura bai, baina, mesedez, beldurrik ez. Beldurrak lotu, gogortu, geldiarazi egiten du. Izan gaitezen elkar-arduratsu".



Igande honetan, hilak 31: Aginagan 10:30ean eta Usurbilen 12:00etan.





BETI BEZALA ZUEN ZERBITZUETARA!



LARRARTE
ASEGURU ETA INBERTSIOAK S.L.



MAPFRE
USURBIL

mur
errotuluak



serigiosu@serigrafiaiosu.com

ordutegi berria_ 09:00-13:00

Lanpostua betetzeko deialdia

ALKARTASUNA KOOPERATIBAK uda parterako langile berri bat behar du, lanaldi erdirako.

Kajan kobraketan, produktuak apaletan jartzen, landare salmentan, biltegian laguntzen, eta dendan sor daitezkeen hainbat lanetan arituko litzateke.

Lanpostu honetarako interesa izanez gero, kurrikulumak bidali itzazue maiatzak 29a baino lehen, alkartasuna@usurbil.com helbide elektronikora edo kooperatiban bertan utzi.



www.alkartasuna.eus

Alkartasuna Kooperatiban:
Atallu industrialdea 26, Usurbil
943 361 114 eta 630 938 027
alkartasuna@usurbil.com



Ugaitz Agirre Zapirain

Aurreko zatian: Pitxu Üsurbilgo alkate egin eta gero, Gipuzkoako Aldundiak gerra deklaratu zion Zuberoako 42. udalerriari. Hala ere, probintzian kalapita eta ezinegon handia sortu zuen gerra zoro hark, eta alundia SS operazioa martxan jarri beharrean izan zen: futbol partidu bat Erreal eta buhameen artean.

Orain: Anoeta Arena da norgehiagoka burutuko den lekua, hala sona internazional handiagoa izango duelakoan. Eta izango ez da ba! Establimenteko egunkari ofizialen errotatibak kolpean geratu dira azken berriaren inguruan informatzeko: eguna, lekua, ordua, estimatzen zen ikusle kopurua, jokalarien partidu aurreko sentsazioak, elkarrizketak... Eta urrutirudiko saioak? Tertuliak, debateak, saio bereziak antolatu dituzte kolpean. Orain arteko dena hutsaren hurrengoa bilakatu da, eta tipo arraroak besterik ez dira espektakulu xeble eta lotsagabe hau kritikatzeko dutenak.

Üsurbilgo jokariak Haraneko soroak aprobetxatu dituzte futboleant nola jokatzen den ikasteko. Nahiko lan badute baloiari ostikoka ibiltzarekin, are gehiago begien bistan ikusten duten tximinetatik botaka irteten den ketzarra irenstearekin. "Eurak

Bazen behin, Üsurbil (Hiru eta fini)



"Eta iritsi da eguna. Bi taldeak aurrez aurre Anoeta Arenan eta bertako eta urrutiko ikusleak zoroen moduan".

UGAITZ AGIRRE

"Üsurbilgo jokariak Haraneko soroak aprobetxatu dituzte futboleant nola jokatzen den ikasteko. Nahiko lan badute baloiari ostikoka ibiltzarekin"

gu baino okerrago egon behar dira", dio Kabanak entrenatzaile titulua bere eginda.

Eta iritsi da eguna. Bi taldeak aurrez aurre Anoeta Arenan eta bertako eta urrutiko ikusleak zoroen moduan. Esatariak ezarria ezin gehiago urratuz Errealeko hamaikakoa oihukatu du zalegoak txaloka eta garrasika erantzunik. Üsurbildarren hamaikakoa ikusi duenean —izugarri luzea izanik zerrenda—:

"Eta zelaiaren gainontzeko erdia okupatuz, Üsurbilgo hamaikakoa". Kilkerrek bakarrik txalo egin dute.

Txilibitua jo eta norgehiagoka hasi da. Eta baloia üsurbildarrena baldin bada ere, konturatzerako lapurtu dute Errealeko jokariak eta sareetara bidali jokaldi ikusezin batean. "Ez baduzu gola ikusi ezin du gola izan", argudiatu dio Pitxuk epaileari, baina honek kasurik ez eta markagailura igo ditu horrela joan ditu hamar golak.

Tranpa egiten ari direla kontentzitura dago Kabana, baina ez daki nola. Errealeko entrenatzaileari galdetu dio zuzenean, ez duela ulertzen nola izan daitezkeen halako supergizakiak inguru haieran dagoen kutsadura tarteko. "Konfiantzan: zaborra erretzen duen tramankulu horretako

errauts guztia bildu eta halako sustantzia likatsu bat sortzen dute. Zuzenean zainetan xiringa batez eta zure errendimendua jainko baten parekoa bilakatzen da". Kabanak ez dio sinesten, eta jendea aspertzen hasi denez jada inolako emoziorik ez duen partidua tarteko, entrenatzaileak zera egiteko esan die. Bat-batean, transformazioa hasi da: Errealeko jokariak ukabilak gogor jarri eta garrasika hasi dira. Ilea goratzen eta horitzen ari zaie, eta barne indar mistiko batek inguratzen dituen euren gorputzak. "SS operazioa: Super Saiyajinak dituzue hauek. Zergatik uste zenuen bestela esan nahi zutela gure armarriko ss hizkiek?".

Eta Pitxu berriz ere epaileari kexuka. Hori beste istorio batekoa dela, eta ezinezkoa dela halako izakien aurka partidu bat irabaztea. Baina epaileak buruarekin berak ezin duela ezer egin. "Ba orduan... E Ugaitz! Demokrazia literarioa denontzat edo ez dugu ezer gehiago egingo!" "Baina..." "Ez, ez, denok unibertso literario berean gaude edo agur!". Eta aukera gehiago gabe, eman dizkiet dragoi bolak, deitu diote Shenroni eta egin dute Euskal Herria eta Maule hiriburua eta Pitxu lehendakaria eta burua doakit eta kof kea kof sirena hotsa kof agur kof horrela ezin dela idatzi kof ikusten nola fantasiak kutsatz

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Idoia Torregarai Martija

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Kima
MASAJE LEKUA
·KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA
Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Datorren astelehenean zabalduko da matrikulazio garaia Zumarte Musika Eskolan

Ekainaren 1ean zabalduko da 2020-2021 ikasturtean matrikulatzeko epea. Aitzakia honekin, Zumartekoengana hurbildu gara.

NOAUA! Matrikulazioa nola osatu behar da? Soilik online edo presentzialki egin ahal izango da?

Zumarte Musika Eskola: Duela bi urte matrikulazioa online egiteko aukera zabaldu genuen eta harrera oso ona izan zuen. Oraingoan ere, herritar eta langileon osasuna bermatu nahian, matrikulazio guztia online egin nahi dugu. Hala ere, matrikulazioa presentzialki egiteko aukera izango da: ekainak 2 asteartea (arratsalde, 17:00-19:30) eta ekainak 4 osteguna (goizez, 10:00-13:00).

Laburbilduko al zeniguke zein den Zumarte Musika Eskolaren eskaintza akademikoa?

Guk Zumarten eskaintza anitza dugu: Musika Txokoa (gaztetxoentzat), Musika Mintzaira (ez hain gaztetxoentzat), tronpeta, tronboia, saxofoia, bonbardinoa, biolina, perkusioa, klarineta, eskusoinua, trikitixa, panderoa, pianoa, txistua, gitarra, flauta, organoa, abesbatza eta talde instrumentalak.

Konfinamenduan, ikasleek entseatzeko jarraitu dute etxean eta Zumartek sare sozialetatik



Matrikula on-line egin daiteke www.zumarte.eus web orrialdean. Bestela presentzialki: ekainak 2 asteartea arratsalde; ekainak 4 osteguna goizez.

MATRIKULAZIOA

Online egitea hobetsi dute. Baina presentzialki egiteko aukera izango da: ekainak 2 asteartea arratsalde, 17:00-19:30. Ekainak 4 osteguna goizez, 10:00-13:00

zabaldu ditu entseguak, ezta?

Egoera oso-oso zaila izan da denontzat, noski, bat-batean etorri zitzaigun, aurretik ezer prestatu eta aurreikusitako gabe. Hasi batean klase-dinamika bat hasi genuen (bideoak elkar bidali-erantzunez...), baina, irakasleak buru-belarri lanean jarri eta gurasoen eta ikasleen inplikazioarekin klaseak on-line, zuzenean, ematen hasi ginen eta horrela jarraitzen dugu. Horrek baditu bere zailtasun teknikoak eta pertsonalak ere, baina orokorrean, erantzuna oso ona izan

dela esan dezakegu eta oso aberasgarria ere; ikasleek denbora, gogo edo behar gehiago dute musika-instrumentua ikasi-jotzeko eta musika barrutik bizi-sentitzen duten ikasle askoren erakusleioa izan da. Horretan guztian, batez ere ikasle gazteenen kasuan gurasoen laguntza ezinbestekoa izan da eta benetan, eskerrik asko eman duten laguntza guttiagatik!

Zumarteren egoitza berria uztailean ziren amaitzekoak. Baina birusarekin eraikuntza sektorea gelditu egon da bolada batez. Baduzue aurreikuspenik?

Zumarteko egoitza uztailean amaitzekoa zen, bai, baina denok dakigun bezala birusa zela eta pare bat astez obra geldirik egon zen. Hala ere, Udalak ikasturtea bertan hasteko moduan egon gaitzekela adierazi digu eta ea horrela den. Hala

ere, ekipamenduaren hornikuntza arazoak egon daitezke eta birusaren inguruan Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailetik egon daitezkeen protokoloak aplikatzeak sortu ditzakeen egokitzapenak ere zer ikusia izango du.

Horrez gain, Europako Musika Eskolen Elkarteak gai honen inguruan ekainaren 6an eskainiko duen ikastaro-foroan parte hartuko dugu, bertan egongo diren espezialistek ematen dituzten aholku-iradokizunak entzun eta aztertzeke asmoz, gero gurean aplikatu ahal izateko.

Ikasturte amaierako kontzertuak

COVID-19ak bete-betean harrapatu zuen Soinurbil, Zumarte Musika Eskolak antolatzen duen zikloa. Hainbat ekitaldi bertan behera utzi behar izan zituzten. “Hala ere, talde guztiak aurrerago beraien emanaldiak egiteko prest eta gogotsu agertu ziren eta hori da jarrera, aurrera egin behar dugu kultura eta musikaren munduan”, adierazi digute Zumarte Musika Eskolakoek.

Bestalde ikasturte bukaeran kontzertuak egin ohi dituzte. Ikasturte bukaera honetan ere egingo da, baina nola? “Hori prestatzen ari gara orain, ikusiko duzue”.

2020-2021 ikasturterako matrikulazioa

■ Datak: Ekainak 1-5 bitarte.

■ Orduetgia presentzialki:

- Asteartean: 17:00-19:30.

- Ostegunean: 10:00-13:00.

■ Eskaintza: Musika Txokoa, musika mintzaira, tronpeta, tronboia, saxofoia, biolina, perkusioa, klarineta, eskusoinua, trikitixa, panderoa, pianoa, txistua, gitarra, flauta,

organoa, abesbatza eta talde instrumentalak.

■ Matrikula nola egin: on-line datuak bete www.zumarte.eus orrian edo “2020-2021 Matrikulazio inpresoa” eskuz bete (Zumarten eskatu, 943371594) eta Zumarteko bulegoan entregatu (Puntapax 10, behea).

■ Ordainketa: Plaza kopuruen

zozketak egin eta onartutako ikasleen zerrendak argitaratu ondoren, adierazitako kontu korrontetik, ikaslea onartua izan den ikasgaien matrikulaziorengatik ordaindu beharreko tasaren %10 kobratuko zaio ekaina bukaeran, %40 iraileko lehen astean eta %50 abendua hasieran.

Lehenengo urteko matrikulen eta kuoten prezioa mantenduko da.

Plaza banaketaren arautegia aplikatuko da.

■ Matrikulen prezioak, hobariak, Instrumentu-Musika Txoko-Abesbatzako ordutegiak... zumarte.eus web orrialdean ikusgai.

“Tokiko hedabideok argi erakutsi dugu funtzio sozial garrantzitsua betetzen dugula”

NOAUA!ren moduko hedabideek kezka begiratzen diote etorkizunari. Koronabirusaren krisiak sektore guztiak kolpatu ditu, eta hedabideena ez da salbuespena izan. Toki komunikabideen diru-iturri propioak ia desagertu egin dira. Txanponaren beste aldean, toki komunikabideok egun hauetan lanean jarraitzeko egin duten ahalegina eta audientzietan izan duten igoera daude. “Beste egoera zail batzuk gainditu ditugun moduan, honi ere elkarlanean aurre egingo diogu”, Jone Guenetxea Arrinda TOKIKOM erakundearen presidentea adierazi digunez.

NOAUA! Kazetaritzaren ikuspuntutik, zelan daramazue lan karga?

Jone Guenetxea: Gurea jarduera esentzial bat izanda, ez dugu etenaldirik izan. Gainera, informatzeko bokaziotik, inoiz baino tinkoago eutsi diogu produkzioari. Herritarrei informazio fidagarria zintzotasunez helarazteko konpromisoa berretsi dugu. Albiste faltsuak geroago eta ugariagoak diren informazioaren mundu honetan hedabideon lana oso beharrezkoa da. Herritarrek jakin nahi izan dute egunerokotasunean krisi honek zelan eragiten dien, eta informazio hori eskuratzeko tokiko hedabideetara jo dutela uste dut.



Jone Guenetxea Arrinda euskarazko toki komunikabideak batzen dituen TOKIKOM erakundearen presidentea da, baita Durangaldeko Anboto astekariko zuzendaria ere.

JONE GUENETXEA

“Interneten, krisi aurreko audientziekin alderatuz, %60tik gora hazi da tokiko hedabideon audientzia. Datu horiek ondo egindako lanaren adierazgarri dira”

Audientziek zenbat egin dute gora?

Krisiaren hasieran gaitzak gogorren jo zuen eremuan egin zuten audientziak gora. Alearen (Araba) eta Geuriaren (Basauri) adibideak hortxe ditugu. Orokorrean, euskal hedabide guztion kontsumoak gora egin du Interneten. Tokikoon ka-

suan, TOKIKOMeko hedabide guztion trafikoa batuta %97ko igoera izan dugu iazko sasoi honetako datuekin alderatuz. Hau da, bitak bikoiztu egin dira. Krisi aurreko audientziekin alderatuz berriz, %60tik gora hazi da audientzia. Datu horiek ondo egindako lanaren adierazgarri dira. Tokikook argi erakutsi dugu funtzio sozial garrantzitsua betetzen dugula gure komunitateari informazio fidagarria helaraziz. Nik neuk ere euskal hedabideon informazioa inoiz baino gehiago kontsumitu dut eta irakurle legez aitortu behar dut eduki benetan interesgarriak ikusi ditudala. Alde horretatik, pozik egon gaitzkeela uste dut.

Proiektu askoren biziraupena kolokan dago une honetan

Beste hainbat sektorek bezala, toki komunikabideen ere erakundeen eta gizarte osoaren babes behar du datozen garaiotan, esentzialtasun hori garai txarretan eta hobexegoetan ere aitortzeko. TOKIKOM erakundeekin elkarlan estuan dabil babes horri forma zehatza emateko ahaleginetan. Hainbat bidetatik etor liteke babes hori: publizitate instituzionala egiterakoan Google, Facebook eta Twitter bezalako multinazionalen gaintik tokiko hedabideak lehenetsiz, publizitate kontratazioa hobari fiskalen bidez sustatuz, diru-laguntzen justifikazioetan malgu jokatzuz...

Baloratzen ez den lana

“Gizarteari, berriz, toki komunikabideak egiten ari diren lana ondo gogoan hartzeko eskatu nahi diogu”. TOKIKOMeko arduradunaren esanetan, “egunotan haien bidez jakiten ari gara gauzak zertan diren herrian, gure Udalak zein zerbitzu duen martxan eta zein ez, herriko ekimenen berri ematen ari gara... Informazio eta zerbitzu garrantzitsua da hori, sarritan behar bezala baloratzen ez dena”.

Galera handiak aurreikusitako dira

Harro eta pozik egoteko motiborik ez da falta toki komunikabideen sektorean, baina egoera luzatu ahala, kezka ere areagotzen doa. Ahalegin, lan-zama, kostu eta informazio eskaera gehigarri hau toki komunikabideen diru-iturri propioen inoiz ez bezalako

murrizketarekin batera iritsi da. Tokiko jarduera sozial, ekonomiko eta kulturala erabat geldituta, komunikabideon publizitate eta zerbitzu salmentak egun batetik bestera desagertu dira. TOKIKOMek bazkide dituen 25 entitateen artean egindako ikerketa baten arabera,

martxotik abuztura %72 murriztuko da batzuetan beste toki komunikabideen fakturazioa, kasu askotan %80ra ere iritsitako.

Epe erdira ere, aurreikuspenak ez dira onak

Eurotara ekarrita, aurreikus-

pena da toki komunikabideek 2.532.720 euroko diru sarrerak galtzea abuztura bitartean, publizitatean eta bestelako komunikazio zerbitzuetan izandako murrizketen ondoren. Irailtik aurrera zer eta nola etorriko den ere ez dago jakiterik, baina ezin optimista izan.

Merkataritza eta ostalaritza sustatzeko bonoen araudia kaleratu du Udalak

COVID-19-aren ondorioz galera ekonomikoak izan edo establezimendua itxi behar izan duten herri merkataritza eta ostalaritza laguntzeko bonoak erosi ahaliko dira hilabeteotan. Sistema hau arautzen duten oinarriak kaleratu zituen Udalak hilaren 22ko Aldizkari Ofizialean.

Bono hauen salerosketarako gertuago.eus online plataforma martxan jartzeko lanean ari da Udala. “Arropa eta modako osagaien salmenta, ile-apaindegiak eta estetika zentroak, liburu dendak, osasun zerbitzuak, jatetxeak eta sagardotegiak dira bonoen onuradunak izango diren establezimenduen jarduerak”, iragarri du.

Bonoen salerosketa sistema honetatik kanpo geratuko dira, ostalaritza establezimenduak. Sektore honi zuzendutako apar-



20.000 euro bideratuko ditu Udalak egitasmo honetara.

teko eta presazko diru-laguntza lerroa iragarri du Udalak.

%20ko deskontua

Establezimendu bakoitzean, gehienez 2.000 euro xahutu ahaliko dira bonoekin. Herritar bakoitzak gehienez bonoen bidez 1.000 euro gastatu ahaliko ditu; 20, 50 eta 100 euroko bonoak izango ditu eskuragarri.

Egitasmoarekin bat egiten duten saltokiek gertuago.eus atarian alta eman eta bertan “komertzioaren profila editatuko da”. Bonoak erosteko ere webgune berean erregistratu beharko du herritar bakoitzak. Bono bakoitza %20ko deskontuarekin eskuratu ahaliko du, deskontua Udalak bere gain hartuko du.

Kanpaina abenduaren 31ra arte luzatuko da.

Ostalaritza guneentzako diru-laguntza deialdiaren oinarriak kaleratu ditu Udalak

Taberna, kafetegi eta gainerako ostatuei begirako presazko diru-laguntza iragarri zuen joan den astean Usurbilgo Udalak. Oinarriak maiatzaren 22ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean kaleratu zituen. “Laguntza hauen xedea da larrialdi egoerak sorturiko kalteak arintzen laguntzea, horretarako, laguntza ekonomikoak eskainiko dira, Usurbilgo tokiko taberna, kafetegi eta ostatuentzat diru sarreren gabezia arintzen laguntzeko eta gastu finkoei aurre egin ahal izateko”.

Guztira 10.000 euro bideratuko ditu arlo honetara. Establezimendu bakoitzak gehienez 400 euro jasoko ditu, COVID-19aren osasun krisialdiaren ondorioz, “beren jar-

duera geldituta edo fakturazio % 75ean murriztua badute”.

Baldintzak

Diruz lagunduko dira, errentamentu, ohiko hornidura, gestoria, aholkularitza edota langileen gastuak, martxoaren 14tik maiatzaren 11ra artekoak. Dirulaguntza osoa jasotzeko, “gastuaren zenbateko berdina edo handiagoa aurkeztu beharko da. Bestela aurkeztutako eta behar bezala justifikatutako gastuetara egokituko da dirulaguntza”.

Deialdi honetan parte hartzeko ostalaritza guneek bete beharko dituzten baldintzen artean dira, “jarduerari eragin izana, edo COVID-19ak osasun krisialdiaren ondorioz, erregu-

lazioko espediente bat izatea (ERTE) autonomoentzako aldi baterako jarduera eten izanagatik ezohiko prestazioaren titular izatea edo eskatu ahal izateko baldintzak egiaztatzea”.

Baldintzok ere bete beharko dira: ekonomia-jardueren gaineko zergan alta emanda egotea, negozioa Usurbilgo udalerrian kokatua egotea edota erakunde ezberdinekiko betebeharrak egunean izatea.

10 egun baliodun

Maiatzaren 23az geroztik “10 egun balioduneko epean” eskatu ahaliko dira laguntzok, erregistroa@usurbil.eus helbidearen bidez. Udalera joan behar izanez gero, hitzordua eskatu aurrez hona deituz: 943371951.

Aurrematrikulazioa Lanbide Eskolan

Datorren ikasturterako aurrematrikulazioa ekainaren 1etik 19ra izango da, bi egunok barne.

Eskaintza akademikoa:

Erdi eta goi mailako zikloak euskaraz eta erdaraz, eta goi mailakoetan parte bat ere ingelesez egin daiteke.

Zikloak espezialitate hauekikoak dira: Administratiboa, Elektrizitatea eta elektronika, Mekanika, Mantenimendua, Energia eta ura.

Espezialitateak lehenastuen arabera zerrendatu eta non egin nahi diren zehaztu behar du ikasleak. Honenbestez, zer eta non ikasi nahi den argi izatea komenigarritzat jotzen du Lanbide Eskolak. Espediente akademikoa eta NAN-aren fotokopia bat ere aurkeztu beharko da. “Ezin da matrikula egin, aurrematrikulatu gabe”. Matrikulazioa, uztailaren 13tik 17ra izango da.

Informazio gehiagorako:

lhusurbil.eus
943 364600
eskola@lhusurbil.eus

Oinarrizko

Lanbide Eskola

Atallun kokatua dagoen 15-17 urte artekoek zuzenduriko eskolan ere aurrematrikulatzeko garaia da. Bi ikasturteetan, oinarrizko lanbide titulua eskuratzeko aukera eskaintzen du, sukaldaritza eta jatetxe arloan, baita ile-apainketa eta estetika arloan ere. DBHko titulua ateratzeko eta erdi mailako zikloetara sarbide zuzena eskaintzen du, lan munduratzearrekin batera.

Informazio gehiago:

lhi@usurbil.eus
943 36 04 65
olh.usurbil.eus

Aldaketak garraio zerbitzuetan

U surbilgo “deseskala-tze” prozesuan urrats berri bat; taxibus zerbitzua bidean da aste hasieratik. Bestetik, Lurraldebus eta Euskotrenek ere ordutegi berriak ditu indarrean.

Taxibus udal zerbitzua

65 urtetik gorakoentzako zerbitzu pertsonalizatua eskainiko du soilik. “Bakarrik moldatuko ez balira, laguntzaile gazteago batekin joan ahal izango lukete”, argitu du Udalak. Taxibusaz baliatzeko deitu hona: 630 643 596.

Euskotren

Lan egunetan zerbitzuen %100a eskaintzen segitzen du Euskotrenek. Asteburuetan (larunbat, igande eta jai egunetan) aldiz, murrizketek indarrean segitzen dute. Usurbildik Oriorantz, orduro izango dira zerbitzuak 8:04-22:04 artean. Usurbildik Donostiarantz ere orduro, 8:54-22:54 artean. Informazio gehiagorako: 944 333 333 / euskotren.eus

Lurraldebus

Ordutegi berria jarri du baita indarrean Lurraldebusak.



Taxibusak 65 urtetik gorakoentzako zerbitzu pertsonalizatua eskainiko du soilik.

Ohartarazi dutenez, maskara erabiltzea ezinbestekoa da eta segurtasunezko distantzia mantentzea bidaiarien ardua. Zutik garraiatzeko plataformak ez dituzten autobusen kasuetan, “bidaiarien artean gutxienez eserleku bat hutsik utziko da. Elkarrekin bizi diren bidaiariek soilik bidaiatu ahal izango dute elkarren ondoan”. Informazio gehiagorako: 900 300 340 (8:00-22:00) lurraldebus.eus Lurraldebusen app-a

UK09 (Zumaia-Donostia)

Astelehenetik ostiralera:

■ Usurbildik Donostiarantz: 7:10, 7:45, 8:10, 9:15, 10:15, 12:15, 13:45, 14:15, 14:45,

15:15, 15:45, 17:15, 18:15, 19:15, 21:15, 21:45.

■ Usurbildik Oriorantz: 8:15, 8:45, 9:15, 10:15, 11:15, 13:15, 13:45, 14:15, 14:45, 15:15, 15:45, 16:15, 18:15, 19:15, 20:15, 21:45, 22:45.

T2 (Aginaga-ospitaleak)

Egunero:

■ Usurbildik egunero eta orduro abiatuko dira zerbitzuak 7:20-21:20 artean (7:17an, 10:17an eta 14:17an eta 20:17an Aginagatik), 15:20ean izan ezik.

■ Ospitaletik orduotan: 8:10, 8:50, 9:50, 11:10, 11:50, 12:50, 13:50, 15:10, 16:10, 16:50, 18:10, 18:50, 19:50, 20:50, 22:10ean. Denak helduko

dira Usurbileraino. Aginagaraino, 13:50, 15:10, 19:50 eta 22:10ean ospitaletik abiaturiko zerbitzuak.

T6 (Usurbil-Hernani)

Astelehenetik ostiralera (lan egunetan):

■ Usurbildik: 7:15, 8:15, 9:15, 13:15, 14:15, 18:15, 20:15. 10 minutura helduko da autobusa Zubietara, Lasartetik igaro ostean 20 minutu beranduago Urbilera.

■ Hernanitik: 7:45, 8:45, 9:45, 12:45, 13:45, 14:45, 18:45 eta 20:45ean. 10 minututan Urbilera helduko dira zerbitzuak, 20 minututan Zubietara, ordu erdira Usurbila. Astelehenetik ostiralera, lan egunetan eskainiko dira zerbitzuak.

“Deseskalatzea”, Usurbilen

Aldaketarik ez bada, ekainaren leian Sutegi udal liburutegiko mailegu sistema martxan jarriko dute. Bestetik, Potxoenea eraikineko lokalak herritarren erabilerarako irekiko dira. Eta azkenik, kultur ekintzen agenda berri martxan jartzea aurreikusia du Udalak.

Maskaren erabilera, derrigorrezkoa

Hasieran beharrezkoak ez, gero gomendagarriak eta orain ezinbestekoak. Derrigorrezkoa izango da sudur eta ahoa estaliko duten maskara higieniko eta kirurgikoen erabilera aurrerantzean, estatu alarma egoera amaitu artean gutxienez.

Non erabili

Kalean, aire libreko espazioetan eta baita noski, erabilera publikoko espazio itxietan edo jendaurrearentzat zabalik izango diren guneetan, beti ere pertsonen arteko gutxiene-

ko bi metroko tartea mantentzea ezinezkoa den kasuetan.

Aipatu moduan, maskarak erabiltzea derrigorrezkoa izango dute 6 urtetik gorako herritarrek. Baina ohi den moduan, salbuespenak ere badira araudi berri honetan ere. Kasuotan, ez da ezinbestekoa edo derrigorrezkoa izango maskarak jantzita izatea:

■ Arnasa hartzeko nolabaiteko arazoak dituzten pertsonen kasuan.

■ Egoki arrazoitutako osasun arrazoiengatik maskaren erabilera kontraindikatu du-

ten pertsonen kasuan, edota dependentzia egoeragatik edo BOE-ren esanetan “ezgaitasunen” batengatik bere jokabidea aztoratzea eragin dezakeelako, maskara jantztea bideraezina den kasuetan.

■ Maskaren erabilera ezinezkoa egiten duten ekintzak.

■ Ezinbesteko beste arrazoiengatik.

Babes neurri gehiago

Arduraz jokatu eta norbanakoon erantzukizunerako deia egin du Eusko Jaurlaritzak. Beharrezko babes-neu-

rri guztiak hartzea eskatzen dute:

■ Bi metroko segurtasun-tartea uztea.

■ Maskara erabiltzea bi metroko tarte hori utzi ezin denean.

■ Eskuak sarri garbitzea.

■ Sarri ukitzen diren gainazalak ahal dela ez ukitzea.

■ Eta arriskuko kolektiboekin, hau da, arriskuko pertsonekin, haurdun dauden emakumeekin eta aurretik gaixotasun kronikoak dituzten pertsonekin, kontu handiz ibiltzea.

ETXEBIZITZA

Salgai

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berriua, 2 gela, komuna, sukaldia, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukaldia handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etxeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m². 3 logela, egongela, sukaldia eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berrituta. 688 779 465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukaldia-egongela, 2 bainugela. Etxebizitzak 78 m² eta garajeak 50m². Tel. 676 453 176.

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldia, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa:

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

205.000 euro. Tel. 629 631 838 :

Alokairuan

Konfinamenduan gustura gabiltza gurasoekin baina etxe bila gabiltzan bikote gazte bat gara. Biok hezitzaileak, lan kontratuarakin eta arduratsuak. 695 747 944

Usurbilen, kaxkoan eta inguruan pisu bat alokatu nahiko nuke. Txakurra daukat. Hilareñ 1ean ordaintzeko konpromisoa. 661115222.

Etxe bat edo logela bat alokatu nahiko nuke Usurbil edo inguruan. Kontratua beharrezkoa. Gustura jasoko dut zure deia horretarako aukerarik baduzu. 633141060

Etxebizitza baten bila gabiltza. Baserri bat zainduko genuke aukeran. Familia bat gara, bi seme ditugu eta euskaldunak gara. 630 335 561.

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabiltza. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsuak eta garbiak. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil.

Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626 735 354

Nissan Terrano 2 markako kotxea salgai. 943429682 / 637293471

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxia. Prezioa negoziagarria. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekaxiki kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearakin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaz-

tea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrak emateko. 608201745

Txiribogan asteburueterako lan-gileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainategi erretegian. 680 483 164

Zerbitzaria behar da Lasarteko taberna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara: 607110365.

Finantza eta asegurueterako kudeatzailea behar da Buruntzaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetera, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: profesionaltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrak emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrak emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: gorputzaldia@udarregi.eus

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Emakume bat, interna bezela, lan egiteko prest, etxeko lanak edo adinekoak zaintzen. 664192760 / 722 48 39 94

Esperientzia eta erreferentziak ditut. Etxeko lanak, pertsona helduak zein umeak zainduko nituzke, orduka zein egun osoz. 602830982

Usurbilen lan bila nabil zaintza lanak edo etxeko lanak egiteko. Esperientzia handi eta erreferentzia onak. Orduka zein lanaldi osoan aritzeko disponibilitatea. 617857807

Garbiketa eta zaintza lanak egingo nituzke. Esperientziarekin. Orduka, edo lanaldi osoz aritzeko disponibilitatea. 603315126

Garbiketa lanak, edo zaintza lanak egingo nituzke. Disponibilitate osoa daukat eta esperientzia antzeko lanetan. 631818150

Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko edo garbiketan aritzeko lan bila nabil. Denbora osoz edo orduka. 602424658

Eraikuntzan, jardineritzan edo bestelako ofizioetan lan egingo nuke. Bizargin moduan aritzeko ere bai. 602424658

Laguntza soziosanitarioa behar baduzu ez izan zalantzarik deitzeko. Esperientzia zabala osasun eta zaintza alorrean. Kontxu 619827232

Orduka lan egingo nuke Usurbilen garbiketa lanetan zein zaintza lanetan. 689027247

Lanaldi osoz aritzeko lan bila nabil. Esperientzia asko 661091863

Adinekoak zaintzen zein garbiketa lanak egiten esperientziaduna. Disponibilitate osoa. Egoitza baimena ere badut. 645067560 Betza

Adinekoak zainduko nituzke. Esperientziaduna. 666097595.

Lan bila nabil. Adinekoak zainduko prest. 617016290.



Zorionak Peru!

Etxeko guztien partetik, zorionak Peru! Jada 9 urte! Muxu handi handi bat!



Zorionak Elsa!

Maiatzaren 26an urteak bete zenituen. Zorionak eta besarkada handi bat etxeko partetik.



Zorionak Lur!

Ekainaren 1ean 9 urte handi beteko ditu etxeko txikiak! Muxu potolo bat familia osoaren partetik.



Zorionak Aimar!

Maiatzaren 23an 10 urte bete zenituen!! Muxu handi bat etxeko partetik!!

Lan bila nabil asteburuatarako, adinekoak zaintzeko. 688712294

Lan bila nabilen gazte bat naiz. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen, arratsaldetan edo gauean. Tel. 633 159 088.

Lan bila nabil, pertsona helduak zaintzeko, arratsaldetan edo gauean. 655 986 552

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Segituan lanean hasteko moduan. 631 703 566

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Segituan lanean hasteko moduan. 632 618 839

Lan bila dabilen mutil bat naiz. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan. Tel. 617 016 290

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, garbiketan, ostalaritza edo plantxa egiten. 676 188 411

Lan bila nabil. 655 986 552

Mutil langilea naiz. Pisu baten bila nabil alokairuan altzaririk gabe. Soldatarekin. 666 108 164

Haur edo adinekoak zaintzeko emakume esperientzia handia duena eskeintzen da. Baita ere etxeko garbitasunerako. 602568090 / 658706345

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 603 818 142

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 648 271 757

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 617 016 397

Neska arduratsua lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzeko edo garbiketan. 632 285 101

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 632 264 187

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 688 712 294

Ikastolatik atera ondoren umeak zaintzeko prest dagoen neska usurbildarra naiz; gaztea eta euskalduna. Edozer dela ere, deitu edo bidali whatsapp mezu bat 688637679, Maddi.

Lan bila nabil. Margolari bezala lan egin dut, garbiketa laneta-

rako titulua dut, "catering"ean ere aritu izan naiz. 686 51 35 36.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 631 864 292.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan lan egingo nuke. Tel. 617 748 714.

Lan bila dabilen neska ardu-

ratsua naiz, esperientziarekin. Umeak arratsalde zaintzeko prest. Maria 672340330

Pertsona heldu edo dependienteak zaindu edota etxeko garbiketa lanak egiteko prest. Soziosanitario titulua dut eta esperientziaduna. 686 825 587.

BESTELAKOAK

Isabelita Mandarina Japoniarak (txoriak) ditut salgai. 659185107

Ingelesarekin laguntzeko, Usurbilgo pertsona baten bila nabil, DBH 1ean ikasten ari den nire alabarentzat. 627 18 46 74

AMC markako eltze bat daukat salgai. Oso ondo dago 943363201

Matxaka; sagarra txikitzeko tresna daukagu salgai. Itziar 637974994.

Baserriko kalabazak salgai. 605 783 227.

Estilo guztietako txirikordak (trenza) egiten dira. 658706345, 60256809.

Andatzpe Elkartean bazkide berriak sartzeko plaza libreak dauka. Edozein zalantza argitzeko 669 205 896 (Aitor).

Andatzpe elkarteko bazkidea naiz, plaza saldu nahiko nuke. 699 421 238 Iñigo.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, liburuak... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala.....	.943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	.943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	.900 776 776	Taxia (Angel).....	.607 928 770
Udaltzaingoa.....	.943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	.677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	.943 370 148	Eusko Tren.....	.943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	.697 919 516	LurraldeBus.....	.943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	.943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	.943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	.943 361 215	Anbulategia.....	.943 362 013
Bake Epaitetgia.....	.943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	.943 376 076
Udarregi Ikastola.....	.943 361 216	Iturralde botika.....	.943 363 395
Haur Eskola.....	.943 374 061	DYA.....	.943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	.943 364 600	Gurutze Gorria.....	.943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	.943 372 077	Emergentziak.....	.112
Hastapen tailerrak.....	.943 360 465	Genero-indarkeria, arreta.....	.900 840 111 / 016
KZgunea.....	.943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	.943 362 163
Oiarde Kiroldegia.....	.943 372 498	Kutxabank.....	.943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	.943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	.943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	.943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	.943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	.607 609 379	Banco Popular Español.....	.943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	.943 365 249	BBVA.....	.943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	.943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	.943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	.943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	.901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	.692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	.902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	.943 361 239	Telefonica.....	.1004
Noaua! Kultur Elkarte.....	.943 360 321	Euskaltel.....	.900 840 840

Heriotzak

Kontxi

Gorriti Pagola
Maiatzaren 19an
hil zen



Goardiako farmaziak

Osteguna 28 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Ostirala 29 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Larunbata 30 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Igandea 31 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Astelehena 01 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Asteartea 02 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Asteazkena 03 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Maiatzak 28 - Ekainak 7

Osteguna 04 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Ostirala 05 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Larunbata 06 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Igandea 07 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
URRUTIA-MARTIN-HERNANI
Etxeberri auzoa, 1. Florida
943 55 77 38

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda maiatza

28 osteguna

■ **Euskal Sagardoaren dastatze gidatua, online.** 19:00etan. Gidaria: Mikel Garaizabal. Antolatzailea: Sagardoa Route. Informazio gehiago www.sagardoa.eu/eu/116-sarrera-ticketak helbidean.

29 ostirala

■ **Euskal presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea.** 20:00etan Mikel Laboa plazan. Deitzailea: Usurbilen Nahi Ditugu.

31 igandea

■ **Eliz-ospakizunen itzulera Aginagan eta Usurbilen.** Ikus 11. orrialdea.
■ **Erraustegiaren aurkako sirena-hotsa** 12:00etan.

Azken ostiraleko mobilizazioa, plazan berriz

Euskal presoen eskubideen aldeko azken ostiraleko elkarretaratzeak Euskal Herriko plazetara itzuliko dira maiatzaren 29an. Egun bizi dugun osasun krisialdira egokituta noski. "Pandemia egoerak hala behartuta, oraindik ez dira era normalizatuan egingo", gogorarazi dute Usurbilen Nahi Ditugu bilgunetik.

Hitzordua ohikoa izango da; ostiral honetan arratsaldeko 20:00etan Mikel Laboa plazan. Mobilizazio honetan parte hartu asmo dutenei ordea, maskarak erabili eta bi metroko segurtasun tarte errespetatzea eskatzen diete deitzaileek. "Denon osasuna lehenesteko arduraz eta zuhurtziaz jokatu behar dugula uste dugu".

11 urte espetxean

Usurbilen, modu berezian, espetxealdiren hiru laurdenak beteta eta jada aske behar zuten arren, Olatz Lasagabaster



41 urte bete zituen Olatzek maiatzaren 24an.

eta Patxi Uranga presoek kaleratzea eskatuko da. Madrilgo Aranjuezeko espetxean segitzen dute. Urtarrilean berezi zuten alaba Xuarengandik ehunka kilometrotara dira, COVID-19aren eraginez bisitarik gabe izan dira hilabeteotan. Haurdun den Olatz, erietxera analisi bat egitera eraman eta 14 eguneko berrogeialdian izan dute. Saihestu zitekeen isolamenduan, aspaldi etxean behar baitzuten Patxi eta Olatzek. Ekainean 11 urte beteko dituzte espetxean, eta 2021eko ekaineko dute irteera data.

Ixabel Agirresaroberen ipuin batzuk ipini dituzte ikusgai udal liburutegiaren sare sozialetan

Ixabel Agirresaroberen hainbat ipuin zabaldu dituzte azken asteotan udal liburutegiaren sare sozialetan. Azkena, "Amildegia izenekoa, lau minutuko istorio oso atsegina", liburutegitik aditzera eman

dutenez.

Sutegi Udal Liburutegiko sare sozialetan (Instagram @sutegi05; Facebook @sutegi05) topatuko dituzue ipuinok ikusteko loturak.

Datozenak

Errigoraren produktuen banaketa, laster

Oliba-olioaren banaketa apirilean bideratu asmo zegoen. Barazki-kontserbak, arroza eta pasta banaketa berriz maiatza amaieran. Ekainean 4tik aurrera "Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura" kanpainako produktu guztiak txanda bakarrean helarazteko lanean ari dira. Xehetasun gehiago egunotan jakinaraziko dituzte.

Jaien antolakuntza aurrerabidean

Aste hasieran berriz bildu zen Jai Batzordea Udarregi Ikastolako erdiko aretoan. Bizi dugun osasun krisialdira egokitutako bilkura izan zen. Jaiak ere, testuinguru honetara egokitu behar dira. Eredu berri hau zehazten ari dira azken asteotako bilkuretan.



Prebentzio eta higiene neurriak aintzakotzat hartuta egin zen Jai Batzordearen bilera.

Josue
Igeltseritza

606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

ARRANDEGIA
PELLO
ASTEARTETIK-LARUNBATERA

8:30-13:30

EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIK!
650 31 31 91 USURBIL

Inaki
Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK

Info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

693 059 392

uraitz@uraitz.com USURBIL

BERRIRO ZERBITZUA EMATEN,
OSASUN NEURRI GUZTIEKIN



USURBIL
OPTIKA

943 37 02 69 Zubiaurrenea 10



Irati Ibargoien
FISIOTERAPIA-OSASUNA

943 53 92 66 Puntapax 6B, beheka ezk. USURBIL

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

943 37 08 78 RPS: 28/17



Maria Jesus Rubio Muñoz

DENTISTA

943 36 1 859

Kima
MASAJE LEKUA

943 366 197



ADA
-MASAJEAK-

Errekatziki 1, Usurbil / Tlf. 633 36 22 33

Oinutsik

PODOLOGIA ETA POSTUROLOGIA

www.oinutsik.com - 943 11 09 54

IMFPB USURBIL OLHUI


Oinarrizko Lanbide Heziketa



sukaldaritza
eta jatetxea



ile-apainketa
eta estetika



Usurbilgo Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

AURREMATRIKULA

Epea Ekainaren 1etik 19ra (biak barne).

Tokia Atallu. Zanpiura, 3

Telefonoa 943 36 04 65

Posta lhi@usurbil.eus

aurrematrikulazioa webgunetik egiteko aukera!
olh.usurbil.eus

- » 15-17 urte bitarteko gazteak
- » DBH Graduatua
- » Sarrera zuzena erdi-mailako zikloetara
- » Lan - munduratzea. Profesionaltasun ziurtagiria, 1